

BALIO PROPOSAMENA

Zer behar edo arazo konpontzen duzue?

Guk geure proiektuarekin eskaintzen dugun balioa da bezeroei modu begetariano eta begano batean jateko aukera ematea.

Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?

Jatetxe asko daude janari begetarianoa eskaintzen dutena baina gureak, janari begetariano eskaintzeaz gain, janari beganoa jateko aukera ere ematen du.

Lehiakideengatik bereizten gaituena zera da, jatetxe askotan makinaren bidez egiten dituzte janari eskaerak etab. eta geurean pertsonen bidezkoa izango da, hau da, lan guztia pertsonek egingo dute. Horrelako jatetxeetan normalean prezioak zertxobait altuagoak izaten dira, kalitatezko janaria ez delako merkea baina gure jatetxeak hala ere, denentzat ordaintzeko erraza den zerbitzua eskainiko du.

Bezeroa guri ordaintzeko prest egongo da hainbat arrazoiengatik, horien artean eskaintzen dugun janaria kalitatezkoa izango delako eta gainera prezioa ez delako oso garestia izango.

Gure jatetxearen balioa kualitatiboa da, janari berezia eskaintzen dugulako eta gainera eremu honetan ez dagoelako horrelako jatetxerik. Baita ere, gure jatetxean egongo diren produktuak hemen ingurukoak izango dira.

